

# EH Bildu Europako Parlamenturako Hauteskundeetan

**2**014ko maiatzaren 22tik 25era Europako Parlamenturako hauteskundeak egingo dira. Hitzordu horri begira EH Bilduk lehenengo gogoeta hau plazaratu nahi du.

Egun pairatzen dugun krisiak Europar Batasunaren erai-kuntza ereduak sorreratik zituen akatsak eta hutsuneak agerian utzi ditu.

Austeritatearen politikek pertsonen eskubideak zapaldu eta merkatu kapitalistaren beharrak bermatzea helburu duen Europar Batasunaren eredia biluzik utzi du.

Edonola ere, eta egungo sistema gainditzeko helburua aski agertuz, askapen sozial eta nazionalaren bidetik igaro nahi duen ezker eraldatzailearen ikuspuntutik europar eraikuntzaren prozesua guztiz estrategikoa dela adierazi nahi dugu lehenik eta behin.

Euskal Herria Bilduren baitan argi daukagu askapen nazionalaren aldeko borroka askapen sozialaren borrokaren eskutik joan behar duela. Gaur egun indarrean dagoen Europar Batasunak ez ditu herritarren eta herrien eskubideak bermatzen. Ez eskubide sozial eta laboralak, ezta ere hizkuntza eta aniztasun eskubideak.

Finean, egun indarrean dagoen eredia antzua da. **Hori dela-eta, EH Bilduk osatu nahi duen hautagaitzak ez du Europar Batasunaren erreforma eskatzea helburu; Europar Batasunaren eredia eratzailerik bat martxan jartzea exigitzen dugu.**

Europa berria, herritar eta herrien Europa eratzeko bidean, EH Bilduren lan eremua ez da Europako Parlamentura mugatuko. Gure jarduna esparru guztietara eramango dugu eta ahalik eta zabalena izango da. Gure helburua hau da: EH Bildu eragile eta interlokutore integrala bilakatzeko Europar Batasunaren eredia eratzailerik bat martxan jartzea exigitzen dugu. Eragile sozial, sindikal eta abarrekin elkarlanean arituz irudikatzen dugu gure hautagaitza, beraiekin batera egungo marko politiko, sozial eta ekonomikoa gainditzearren aldera lan eginez.

Heldu den urteko europar hauteskundeak oso testuinguru berezian gertatuko dira. Besteak beste, hauexek dira erronka hori kokatzeko hartu beharreko elementuak:

–Hasieran azaldu bezala, egoera sozioekonomiko larriaren ondorioz Europar Batasunak hobetsi dituen murrizketen politikek jarraipena izango dute datozen

urteetan. Haien ondorio larriak zuzenean pairatuko dituzte gure langileek, pentsiodunek, gazteek... gizarteak orokorrean. **Eredu horren aurrean justizia sozialean eta elkartasunean oinarritutako eredia aldarrikatzen du EH Bilduk.**

–Troikak ezarritako aginduei men eginez Espainiar gobernuak inposaturiko erreformen ondorioz, langileen borrokari esker urteetan lortutako oinarritzko eskubide sozial eta laboralak kolokan jarri dira. Hori gutxi balitz, Estatuak lehendik ere pairatzen zuen demokrazia ga-beziak eta ustelkeriak inoiz baino indar handiagoarekin azalerazi dira. Gauzak horrela burujabetzaren aldeko aldarria inoiz baino premiazko agertzen da euskal gizartearen aitzinean.

–Euskal gatazkaren konponbideari eta bakearen erai-kuntzari dagokionean nazioarteko komunitateak paper garrantzitsua jokatzeko du. **Gatazkaren konponbidearen alde indarra egiteko premiazkoa izango da Europako Parlamentuan ordezkaritza izatea.**

–Europar Batasunaren baitan, 2014. urtean eta ondorengoetan zentralitatea hartuko du estatutik gabeko nazioei dagokien erabakitze eskubideak. Eskozia eta Kataluniako prozesu subiranistek eragin nabarmena izango dute Euskal Herria garatzen ari den askapen prozesuarengan. **Euskal Herriak ahots propioa izan behar du Europak zabaldu behar duen prozesu eratzailerik bat martxan jartzea exigitzen dugu. Europar Batasunaren barne zabalkuntzarako mekanismoak abian jarri behar dira, Estatutik gabeko nazioek Batasuneko kide izateko modua izan dezaten.**

## 1. Egoera sozioekonomikoa

LEgoera sozioekonomiko oso larriaren gertatuko dira europar hauteskundeak. Bigarren Mundu Gerra ostean Europar Batasunaren ongizatearen estatua larriki zauritu du krisiak eta, ondorioz, langileen hamarkadetako borrokari esker lorturiko eskubide sozialak arrisku bizian dira.

Kapitalismo finantzarioak sorturiko krisiari aurre egiteko nahian Europako Batasunak, europar herritarren atxikimendu eza areagotu du.

Merkatuaren aginduetara jarduten duten agintariekin herri-tarren bizkarrean utzi duten zorraren zama guztiz jasan-

gaitza da. Egoera horretan erabat ulergarria da herritar gehienek Europa aterpe baino mehatxu gisa irudikatzea.

Troikak bultzatutako politikak herritarren aldeko babes sistema suntsiketa bilatzen du. Bruselak berdintasun edo lan baldintza duinak sustatzeko hainbat zuzentarau onartu baditu ere, Troikak horien aplikazioa eragotzi du.

Hori horrela, gehiengo politikoak aldatu behar dira herritarren eta herrien neurriaren eginiko batasuna bultzatzeko helburuarekin eta Europako Batzordeak eta Troikak bereganatu monopolioa deuseztatzeko.

Era berean, sistema finantzarioaren gaineko kontrola, garrantasuna zorrozteko beharra agerian utzi du, ikusita azken urteetan Europako Banku Zentralak eta estatuetako banku sistemek izan duten duten jokabidea. Besteak beste, krisiari irtenbidea emateko eta elkartasunezko ekonomia garatzeko bidean, beharrezkoa jotzen dugu zorra ikuskatzea.

Halaber, EH Bilduk krisi sistemiko honi aurre egin eta buelta emateko, eredu aldaketaren aldeko bidean, ingurumenaren babeserako politikari garrantzi berezia ematen dio. Zentzu horretan, besteak beste burujabetza energetikoa eta elikadura burujabetza agenda politikoaren lehen lehen izango ditu.

## 2. Iraultza demokratikoa Europan

EH Bilduren ustez krisi honek Europako Batasunaren defizit demokratikoa agerian utzi du. Bere gordintasun osoan, gainera. Horrek herritarren eta botere-guneen arteko distantzia areagotu du. Herritarrek hautatzen ez dituzten erakundeek (Kontseiluak, Batzordeak, EBZk...) marrazten dute politika europarra. Azken erreformak Parlamentuaren boterea indartu badu ere, oraindik ere bere eragina murrizta da.

**Europak prozesu eratzaila bat abiatu behar du, prozesu irekia, parte-hartzailea eta demokratikoa. Europar Batasunak pairatzen duen defizit demokratiko horri aurre eginez, Europa alternatiboa eraiki behar da.**

**Herritarrek izan behar dute Europaren eraikuntza-aren subjektua. Horretarako, herri ekimen legegilea bideratzeko arauak aldatzea eta prozesua erraztea ezinbestekoa da, eta herritarrak erabakietan zuzenean parte hartzeko bestelako mekanismoak abian jarri behar dira (kontsultak, erreferendumak, eta abar) Europar Batasunak eraldaketa demokratikoa behar duelako.**

Europak gaitasun legegile osoa ukanen duen Parlamentua behar du, Tratatuaren gainean erabakiak hartuko dituen parlamentua.

## 3. Autodeterminazio eskubidea

Europar Batasunaren baitan, 2014. urtean eta ondoren-goetan zentralitatea hartuko du estaturik gabeko nazioek duten erabakitze eskubidearen inguruko eztabaidak. Testuinguru horretan Europako Batasunaren baitan barne zabalkuntza bermatzeko mekanismoak irekitzea ezinbestekoa da, Estatu berrien onarpenari bide eginez.

Eskoziak, Catalunya, Flandriak eta beste hainbat herriekin eginen duten bezala, Euskal Herriak bere etorkizuna libreki erabakitze eskubidea duela adierazi behar dugu.

Beraz, aro politiko berezi honetan bere etorkizuna nazio libre gisa irudikatzen duen Euskal Herriak hitza hartzeak Europan inoiz baino zentzu gehiago du. Hitza hartze horretan, gure hizkuntza den Euskararen ofizialtasuna aldarrikatuko dugu, Europako erakunde guztietan.

Euskal Herriaren eta Europar Batasunaren arteko harreman zuzena eta bitarterik gabekoa izatea aldarrikatzen dugu. Egun eremu administratibo ezberdinetan dauden euskal erakundeek (Parlamentuek, Aldundiek, Udaltxeek...) lotura egin behar dute Europako parlamentuarekin, bi norabideko harremana garatuz.

## 4. Gatazkaren konponbidea eta Bakea

Azken 50 urtetan pizturik izan den gatazka armatuak utzitako ondorio mingarriak gaituz, euskal demokrazia eraikitze garaia dela adierazi nahi dugu Europan Parlamentuan.

Estatuek euskal gizartearen sortu duen esperantza higatzera jotzen duten honetan, gure herriak bakea eta demokrazia behar dituela ozenki aldarrikatzera goaz Europan.

Madrilek eta Parisek elkarriketa, akordioa eta herritarren borondatea ardatz izanen dituen konponbide prozesuaren aitzinean agertu duten jokabide itxia salatuz Aieteko Deklarazioak irudikatu zuen aukera historikoa oraindik ere zabalik dagoela esatera joan behar dugu Europan. Madrilek eta Parisek ez badute nahi ere, guk aurrera jarraituko dugula giza eskubide guztiak oinarri hartuta bakearen eta elkarbizitzaren eraikuntzan.

Euskal Herriaren zabalduko aro politiko berriaren berri eman nahi dugu. Europan orain arte izan duen papera nahi genukeena baino apalagoa izan bada ere hori 2006an Parlamentuak sostengatu zuen adierazpena edo Basque Friendship-ak eginiko lana. Aurrera begira Bruselak duen inplikazio maila bizkortzeko aukerak hobesteko Bruselan egoteak garrantzia handia du.

Era berean, Europan Batasuna eta Europan Batasuneko estatu ordezkariekin mintzakidetzak ofizialak izateak konponbide prozesuaren garapenera begira funtsezko ekarpena ekar dezake. Brusela nazioarteko harremanen elkargune

garrantzitsuenetakoa baita, eta aniztasunean oinarrituta indar desberdinen arteko metaketa eta elkarlana funtsezkoa delako bakearen eraikuntzarako.

Espainiar eta frantziar estatuak konponbide prozesuari ezarri dizkioten oztopoak agerian utziz, euskal jendarteak bake iraunkorraren alde egin duen hautua azaldu eta indartu nahi da European.

## 5. Europa eta mundua

Europar batasunak nazioarteko elkartasunean (internazionalismoan), gerra abenturetan ez parte hartzean eta pertsona nahiz herrien oinarritzko eskubideetan oinarritutako kanpo politika propioa, lerrokatu gabea eta independentea

izan behar du.

Ezinbestekotzat jotzen ditugu NATOren desegitea eta laguntza humanitario gisa mozorrotu nahi dituzten hirugarren herriek pairatzen dituzten interbentzioen amaitzea.

Europar Batasunak nazioarteko bidezko merkataritza sustatu beharko luke; besteak beste lehengaien eta elikagaien ekoizleak diren herrien sustapen ekonomiko nahiz soziala garatzeko helburuarekin.

Halaber, lehentasunezkoa jotzen dugu Europa mailako Epaitegi bat sortzea, enpresa transnazionalen jarduera nazioarteko zuzenbidearen pean kokatzeko.

## Gure hautagaitza

**E**gungo paisaia iluna bada ere, ondoko urteetan aldaketa handiak gertatu daitezke Europar Batasunean. Estatu berriak sortzeko aukerak parez pare zabalik daude. Neoliberalismoaren eskutik sortu den eskubide eta askatasun murrizketen aro ilunari amaiera emateko aukerak baliatu behar ditugu, ezkertiar eta soberanistok defendatzen dugun Europa alternatiboaren bidean urrats sendoak emanez.

Inork aukeratu ez dituen eliteen nahiak asebetetzera baino herritarrek dituzten premiak lehenestera jokatu duen batasun eredu berria sortzeko indarrak behar ditugu bildu.

Finean, EH Bilduk Europako hauteskundeetan sustatu nahi duen hautagaitzak zutabe sendoak ditu: erabakitzeko eskubidea alde batetik eta eraldaketa soziala bestetik.

Oinarri horien gainean Europako Legebiltzarrerako hauteskundeek marrazten dituzten erronka handiei erantzuteko hautagaitza eraginkorra sustatzeko lan egingo dugu.

Gure koalizioak eskua luzaturik du, elkarlanaren bidez, herrien Europa eraiki nahi duten eta bide horretan eraldaketa soziala lortzea helburu duten guztiekin indarrak biltzeko.

Arestian aipatu ditugun oinarriak kontutan izanda, erabakitzeko eskubidea eta eraldaketa soziala ardatz hartuta, hautagaitza konpartitua eraikitzeko gure prestutasuna adierazi nahi dugu. Ondorioz, indar politiko desberdinekin harremanak zabalduko ditugu, esku artean daukagun erronkari heltzeko

*2013ko azaroaren 5ean*